

ZIRTAK

Patxi Zubizarreta

IDAZLEA

Ad infinitum?

Eavier Cercas idazleari irakurri nion *El País* Semanaleko *Palos de ciego* artikuluan: “Balizko mirari espainiarrarena gezur hutsa zen. Ekonomia, izan, adreilua-
ren eta kontsumoaren ilusio bikoitzak sortutako mamua zen: dagoeneko adreilua amaitua da eta, kontsumoa, hondoratu; langabezia eta zorra ez bezala, hazkundera gelditu egin da. Zapatero, orain, mamu bat da, buruarin xaloki baikorra, imintziolaria eta ezjakina, inoren konfiantza merezi ez duena, eta Espainia frankismoa gainditu —eta gaindituko— ez duen herrialdea da, apenas demokrati-
koa eta iraganari aurrez aurre begiratzeke gai ez dena”.

Ignacio Echevarría kritikoa irakurri diot *El Mundoko Cultural-lean Nanas del centenario* artikuluan: Miguel Hernandez poetaren mendeurrena dela eta, itxurakeria hutsean dabilta M^a Teresa Fdez. de la Vega nahiz PPko agintariak; poeta, ez gaitezen engaina, komunista eta errepublikazalea zen, eta orain xinpletu eta desitxuratu egin dute haren pentsamendua “teknosozialdemokrazia-
ren hizkera mordoilora ekarriz” denok gaude zapalkuntzaren kontra eta askatasunaren alde, biba gul; eta ez dute lotsarik ospakizunerako eratutako komision nortzuk eta errege-erregi-
nak buru izendatzeko.

Pedro Ugarte idazleari *Pactos secretos* nobelan irakurri nion: “Lopategik naturaltasunez gauzatzen zituen zenbait pribilegio, hainbestearaino non ez baitzituen pribilegiotzat hartzen. Gobernuko presidentearekin nahierara afaltzen zuen, gutziatsua, baita egunkari-
buruekin ere —edo haien jabeekin—, administrazio kontseiluetan elkartu egin zen politika edo finantza munduko goi-goian mailako jauntxoekin. Aurrese-
ntitzen zuen bai prentsa bai parlamentua entitate fantasmalak zirela eta, demokrazia, garesti ordaintzen zen antezpen



DANI BLANCO

« Anjel Lertxundiri irakurritakoak


Javier Cercas idazleari *El País*

Semanaleko *Palos de ciego*

artikuluan irakurritakoa

ekarri zidan gogora,

eta...



irudia:

Antton Olariaga

gisako bat izan arren, gutxienez, jende xumea matxinatzeko arrazoigabetu egiten zuela. Bere kontzientziaren irudime-
nezko kontadurian, demokrazia egin beharreko gastua zen, bere enpresen segurtasun neurrietarako egiten zituen inbertsioen parekoa. Abstraktu gisako zerbait zen, zinpeko zaintzaile inmateriala, jainkozko inspirazioa eta alimaleko neurriak zituena”.

Carlo Frabetti idazleari irakurri diot *Garako La izquierda glamurosa se queda en garzoncillos* artikuluan: Goya sarien ekitaldi entzutetsuan “Gerrari ez” leloari, lotsagabeki “ETari ez” erantsi nahi izan zioten, eta, berriki, Haminatu Haidaren alde agertu ziren kultur gileek, bide batez, Prisa taldearen aginduz, disidente kubatarren aldeko jarrera erakutsi behar izan zuten: “Herri sahararraren independentziaren aldeko borroka Washingtonek babestutako sasidisidentziarekin konparagarria balitz bezala (...).
Frankismoaren krimenak ikertu eta osatu behar dira, noski. Baina, bide batez, iker eta osa ditzagun borbonismoarenak, felipismoarenak, aznarismoarenak, zapaterismoarenak, garzonismoarenak...”.

Anjel Lertxundi idazleari irakurri nion *Berriako Demokrata eta klandestino* artikuluan: Demokraziaren sines-
tuna hasiz gero zentsura eta boterearen gehiegikeriak salatzen, bururatuz gero kondenatzea legeek unean uneko interesei erantzutea, bere egiteko etiko-
ak betetzea, “demokraziaren etsaitzat hartzen dute. Berak demokrata izaten segitu nahi du, baina gero eta zaila-
goa zaio. Deseroso dago, beldurra ere izaten du askotan. Klandestino sentitzen da. Klandestino demokrata bat, gero eta demokrazia alienatuago baten barruan”. Eta Lertxundiri iraku-
rritakoak Javier Cercas idazleari *El País* Semanaleko *Palos de ciego* artikuluan iraku-
rritakoa ekarri zidan gogora, eta... ■